# VITORIA-GASTEIZKO ESKOLAKO AGENDA 21EAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXEETAN EGINDAKO ESKOLA MUGIKORTASUNEKO INKESTEN EMAITZEN KONPARAZIOA

## 2014-2015 ETA 2015-2016 IKASTURTEAK

Centro de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

**ERANTZUNDAKO GALDETEGI KOPURUA**

| **Inkesta** | **2015** | **2016** |
|---|---|---|
| **NOLA GOAZ ESKOLARA?-HH eta LH-1. zikloa (IKASGELAKO)** | 89 | 161 |
| **NOLA GOAZ ESKOLARA? - LH-2. eta 3. zikloak** | 2.567 | 2.309 |
| **NOLA GOAZ ESKOLARA? – DBH, BATX. ETA ZIKLOAK** | 4.563 | 2.817 |
| **NOLA GOAZ ESKOLARA? – IRAKASLEAK** | 502 | 514 |
| **GUZTIRA** | **7.721** | **5.801** |

**PARTE HARTU DUEN IKASTETXE KOPURUA**

| **2015** | **2016** |
|---|---|
| 22 | 19 |

**1-NOLA GOAZ ESKOLARA?**

-HH eta LH 1. zikloa

| **Nola joan ohi zara eskolara?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Oinez | % 38 | % 42 |
| Patinez | % 4 | % 3 |
| Bizikletaz | % 4 | % 3 |
| Autoz | % 39 | % 40 |
| Autobus, tren edo tranbiaz | % 15 | % 12 |

- Eskolara autoz doazen haurren ehunekoa puntu batean igo bada ere, oinez joatea erabaki dutenen ehunekoak % 4 igo da iazko datuekin alderatuta, autoz doazenen kopurua gaindituz. Gainerako desplazamendu moduak gutxitu egin dira.






- LH-2. eta 3. zikloa

| **Nola joan ohi zara eskolara?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Oinez | % 43 | % 46 |
| Patinez | % 4 | % 2 |
| Bizikletaz | % 3 | % 2 |
| Autoz | % 36 | % 38 |
| Autobus, tren edo tranbiaz | % 14 | % 12 |

- Oinez eskolara doazen ikasleen ehunekoa apur bat igo da (% 3 gehiago) baina % 50ean dago mugikortasun aktiboaren alde egiten dutenen ehunekoa.

- Apur bat igo da autoaren erabilera, garraio publikoaren kaltetan.






- DBH, BATX. ETA ZIKLOAK

| **Nola joan ohi zara eskolara?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Oinez | % 47 | % 50 |
| Patinez | % 3 | % 2 |
| Bizikletaz | % 15 | % 16 |
| Autoz | % 16 | % 16 |
| Autobus, tren edo tranbiaz | % 19 | % 16 |

- 3 puntu igo da mugikortasun aktiboa, garraio publikoaren erabilera jaitsi den kantitate bera.
- Bizikletaren erabilerak igoera txiki bat izan du, aurten % 16ak aukeratu du garraio modu hori.






**2- GEHIENETAN, BAKARRIK ALA LAGUNDUTA ZOAZ?**

- LH-2. eta 3. zikloa

| **Gehienetan, bakarrik ala lagunduta zoaz?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Bakarrik | % 11 | % 12 |
| Beste haur batzuk lagunduta | % 13 | % 14 |
| Heldu batek lagunduta | % 76 | % 74 |

- Ehuneko 2 jaitsi da gurasoekiko mendekotasuna eskolara joaterakoan, eta ehuneko hori desplazamendu autonomoaren alde lerratu da (ehuneko 1 gehiago).






- DBH, BATX. ETA ZIKLOAK

| **Gehienetan, bakarrik ala lagunduta zoaz?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Bakarrik | % 41% | % 39% |
| Beste haur batzuk lagunduta | % 47% | % 49% |
| Heldu batek lagunduta | % 12% | % 12% |

- Mugikortasun autonomoaren ehuneko bera mantentzen da (% 88).

**Gehienetan, bakarrik ala lagunduta zoaz? - 2015**




**Gehienetan, bakarrik ala lagunduta zoaz? - 2016**



**3- NOLA EGIN NAHI ZENITUZKE IKASTETXEKO DESPLAZAMENDUAK?**

- HH eta LH 1. zikloa

| **Nola egin nahi zenituzke ikastetxeko desplazamenduak?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Gurasoekin autoan | % 23 | % 15 |
| Eskolako autobusean | % 10 | % 7 |
| Garraio publikoan lagunekin | % 11 | % 7 |
| Oinez lagunekin | % 26 | % 33 |
| Bizikletaz edo patinez lagunekin | % 30 | % 38 |

- Asko jaitsi da eskolara gurasoekin joateko nahia (% 8), eta igo egin dira modu aktiboak (oinez, bizikletaz edo patinez lagunekin).






- LH-2. eta 3. zikloa

| **Nola egin nahi zenituzke ikastetxeko desplazamenduak?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Gurasoekin autoan | % 13 | % 10 |
| Eskolako autobusean | % 4 | % 4 |
| Garraio publikoan lagunekin | % 7 | % 7 |
| Oinez lagunekin | % 37 | % 38 |
| Bizikletaz edo patinez lagunekin | % 39 | % 41 |

- Txikiagoenen geletan bezala, gurasoen autoan joateko gogoa jaitsi egin da, modu aktiboak erabiltzeko nahia handituz.






- DBH, BATX. ETA ZIKLOAK

| **Nola egin nahi zenituzke ikastetxeko desplazamenduak?** | 2015 | 2016 |
|---|---|---|
| Gurasoekin autoan | % 14 | % 11 |
| Eskolako autobusean | % 7 | % 5 |
| Garraio publikoan lagunekin | % 10 | % 8 |
| Oinez lagunekin | % 38 | % 45 |
| Bizikletaz edo patinez lagunekin | % 31 | % 31 |

- Nahikotxo igo da lagunekin oinez joateko gogoa (% 7 gehiago) eta autonomia txikiagoko moduak (autoa, eskola autobusa, garraio publikoa) jaitsi egin dira.

**Nola egin nahi zenituzke ikastetxeko desplazamenduak? - 2015**




**Nola egin nahi zenituzke ikastetxeko desplazamenduak? - 2016**



**4-AZKEN URTEAN, SUMATU AL DUZU HOBEKUNTZARIK IKASTETXERA JOATEKO MODU AKTIBOREN BAT (OINEZ, PATINEZ, BIZIKLETAZ) ERABILTZEKO ORDUAN?**

- HH eta LH 1. zikloa




- Inkestatuen % 33ak ez du aldaketarik sumatu, baina % 22k bai nabaritu duela bizikleta bide eta oinezkoentzako bide gehiago daudela, eta % 9k sumatu du bizikletentzako eta patinentzako aparkaleku seguru gehiago daudela ikastetxeetan.

- LH-2. eta 3. zikloa




- Nabarmentzekoa da inkestatuen % 17k uste duela bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak gehitu egin dirala. Horrez gain, % 24k uste du ingurune seguruagoan bizi garela (aparkaleku seguruak, zainketa handiagoa eta ikastaroak egin izana).

- - DBH, BATX. ETA ZIKLOAK

**Azken urtean, sumatu al duzu hobekuntzarik ikastetxera joateko modu aktiboren bat (oinez, patinez, bizikletaz) erabiltzeko orduan? - 2016**




- Inkestatuen % 21k ikusi du bizikletentzako eta oinezkoentzako bide gehiago daudela, eta % 23ak sumatzen du hiria seguruagoa dela (aparkaleku seguruak, zainketa handiagoa eta ikastaroak).

**ONDORIO OROKORRAK**

- Bigarren hezkuntzako ikasle gehienak modu aktiboan joaten dira eskolara (oinez, bizikletaz edota patinetez). Gainera, iazko datuekin alderatuta, 3 puntu igo da ehunekoa (%68). Aldiz, lehen hezkuntzako erdia bakarrik joaten da modu honetan (2015. urtean bezala).
- Nahiz eta Lehen hezkuntzako ikasle gehienak, eskolara heldu batekin joaten diren (%74), aurten iaz baino %2 gutxiago dira.
- Gehienei, eskola bidea era aktiboan eta autonomoan egitea gustatuko litzaieke. Horretaz gain, bai LHn bai DBH-n gurasoen autoan joateko nahia 3 puntu jaitsi dela azpimarratzekoa da.
- Eskolara joateko erabiltzen duten mugitzeko modua asko aldatu ez arren, garraio aktiboak erabiltzeko eta autonomia handiago edukitzeko nahian aldaketak egon dira. Aldaketa hauek oso garrantzitsuak dira Lehen hezkuntzako eta Bigarren hezkuntzako lehenengo kurtsoetako ikasleetan, zeren eta talde hauek dira eskolara autoz edo helduekin gehien joaten direnak.
- Inkestatutako bi herenek, gutxi gora behera, hauteman dute azkeneko urtean hirian edota ikastetxean, eskolara joateko modu aktiboak (oinez, patinean edo bizikletan) erabiltzea errazten dituzten hobekuntzak gertatu direla.